



www.mungia.org



MUNGIARRA

Nortasuna

Txantxangorriak
euskeraz berba egiteko
gonbidapena egiten
deusku

Ekonomia sustapena

Mungian herri-jagole
lanak egiteko pertsona
bi kontratatu dira

Gure Dirua

Herritarrok gure
ordainketak internet
bidez egin ahal izango
doguz



Futbol-zelaiak
bedar barria
eukiko dau





Ager Izaguirre: Mungiako alkatea

Kaixo mungiarra:

Barriro gatortzuz, Udalaren beharraren barri emotera. Hainbat gauza egin dira akabuko hilabete honeetan, eta horreen adierazgarri zure eskuetan daukazuzanak aukeratu doguz.

Ekonomiak gorantzako bidea hartu dauala emoten dau, eta hori enplegu mailan bere igarten goaz, zorionez. Halan da be, Udalek geure esku daukaguzan baliabideak ez dira oraindino beharrian guztiak asetzeko beste. Ez dau emoten gainera, epe laburrean barri onik eukiko dogunik eremu horretan.

Mungiako Udalean, zorionez, jakin izan dogu urte onetan sortutako gerakinak kudeatzen, eta horri esker, daukaguzan zerbitzuei eutsi egiten deutsegu, eta egoera txarrean dagozanei lagunduten jarraituko dogu. Beti esaten dogun moduan, pertsonak dira gehien arduratzen gaituena.

Auzoetan bere ahalegin berezia egiten gabilz, eta aurtengo aurrekontuan, ohikoak izan diran diruez aparte, beste 125.000€ onartu doguz. Legealdi honetan guztira 500.000€ bideratuko doguz auzoetara. Diru horreek zelan

erabili, auzoetako herritarrei entzun ostean erabagiko dogu, eurakaz batera lehentasunak ipinita.

Beste gai batetik abiatuta, gure herriaren jasangarritasunak bere asko arduratzen gaitu. Guretzat, jasangarritasunak lau ardatz nagusi daukaz, eta guztiak garrantzitsuak. Ingurumenagazko begirunea, pertsona eta erakundeek ekonomiarene osasuna jagon, epe luzera begiratzen daben erabakiak hartuz; iraunkortasun soziala, ez daitela inor atzean geratu, eta herri lez daukagun nortasunari eutsi, nortasun hori garatu eta munduari zabaltu. Hori guztia gure eginkizunetan erakusten eta azaltzen saiatzen gara.

Gure nortasunaren adierazgarriak nagusiena, duda barik, gure hizkuntza da, euskerea. Gure asmoa gero eta erabiliagoa izatea da. Udalean bagabilz buruari bueltak emoten, gure egunerokoan erabilerea zelan hobetu asmatzeko, eta era berean, konpromiso bat hartzen dogu, lehenengo berbea euskeraz egitea. Zuek bere bardin egitera gonbidatzen zaituet.

Besarkada bat.

Ager Izaguirre Loroño
Alkatea

Kaixo mungiarra:

El empleo percibe el despegue de la economía y aunque los recursos no abundan, desde el Ayuntamiento hemos sabido gestionar los remanentes, manteniendo así los servicios y ayudando a las personas. Seguiremos haciendo hincapié en los barrios, escuchando a vecinas y vecinos. Invertiremos en ellos 500.000€ en cuatro años.

Entendemos la sostenibilidad en base a cuatro ejes y trabajamos todos ellos: medio ambiente, situación económica de las personas y organizaciones, sistema de garantías sociales e identidad como pueblo. Nuestro idioma es nuestra mayor señal de identidad, por eso, nos hemos comprometido a que nuestra primera palabra sea siempre en euskera. Os invito a que hagáis lo mismo.

Un abrazo.

Ager Izaguirre Loroño
Alcalde

Txantxangorria hegoak zabal-zabal eginda jatorku



Hainbat lekutan ageri dan txindor horrek euskeraz berba egiteko gonbidapena egiten deusku

Euskeraz eta gaztelera dakigunok beti ibili behar izaten dogu aukeratzeko momentu bakoitzean ze hizkuntza erabili, eta sarri askotan –beharrizan argi barik bere– gaztelera jotzen dogu. Atxakia asko eukiten doguz: “aurrekoak ez dauka euskaldun itxurarik”, “hemen nik ez dot inoiz euskerarik entzun”, “laburrago izango da erderaz egiten badot”, “hau gauza serioa da-eta badaezpadan bere”...

Ba, Euskal Herri osoan zabaldu dan txindor horren helburua gure aukera hori erraztutea da, bera ikusten dogun lekutan euskaldunok ez dogu-eta atxakiarik euskeraz ez egiteko. Hainbat lekutan ikusiko



Udaletik hasita, Mungiako leku askotan aurkitu ahal izango dogu txindorraren marka. Uste dogun baino aukera gehiago daukaguz euskeraz egiteko!

dozu: kiroldegian, ikastetxetan, musika eskolan, Olalden, udal bulegoetan, herritarren askoren paparrean...

Euskerak eta euskaldunok ezin deusagu ezetz esan holango gonbidapen bati.

Egizu bat txindorragaz, euskereak “txori onak” behar ditu-eta.

Dale alas al euskera

A partir de ahora cuando veas el logo de un pequeño petirrojo o txantxangorri en un comercio, oficina, polideportivo, escuela o colgado en la camisa de alguien, este será una invitación abierta para hablar y dirigirte en euskera.

Merkataritza euskalduna

Mungiako Euskeraren Aholku Batzarrak 2014an Hemen euskeraz kanpainari ekin eutsanean, herriko merkataritza pentsatzen dana baino euskaldunagoa dala konprobatzea eta herritarrei errealidade hori erakustea euskazan helburutzat.

Hemen euskeraz zigilua lortzeko deialdiari 39 lokalek erantzun eutsien

eta jarrera ona eta aktiboa erakutsi eben euskeraren erabilera.


Ikuspegi objektiboago bat eukitearren, euskera arloan esperientzia zabala daukan Artez enpresari eskatu jakon lokal horreen balorazinoa egitea, eta bi ondorio atera ditu Artezek. Batetik, egitasmo honetan parte hartutako merkatariek oso euskera maila ona daukiela

eta lehenengo berbea euskeraz egiteko ohitura daukiela; eta bestetik, errotulu handiak eta fijoak euskeraz daukiezala gehienek, baina idazkietan gaztelera dala nagusi.

Txostena www.mungia.org/argitalpenak/webgunean dago ikusgai. Aurten maiatzean aterako da zigilua lortzeko deialdia. Emoizu izena! Informazio gehiago: 94 674 90 89.

Zigilua lortu duten lokalak

- | | | |
|------------------------|---------------------|---------------------|
| • EXPERT TROBIKA | AUTOESKOLA | • GENERAL OPTIKA |
| • PLISTIPLAUST | • ITZE | • URRUTIA JOLAS |
| • OLGA MODAK | • GOLZARRI FARMAZIA | KIROLAK |
| • GUDAN FRUTA-DENDA | • SEÑEAK | • BIOLETA MUNDUAN |
| • ZIRATS ESTILISTAS | • ELIOT SCHOOL | • RYELMA |
| • ARTZA KIROL MODA | • PERU LIBURU-DENDA | • AUTO INDUSTRIAL |
| • EKHI-EDER | • LEGARRETA | BASKONIA |
| • IBINARRINAGA | HARATEGIA | • ABOKATUAK- |
| • LEKUNE DEKORAZIOA | • NEURKETA | AHOLKULARIAK |
| • GOROSTIDI BIZIKLETAK | ELEKTRONIKA | • IÑAKI SASTRERIA |
| • ITURBURU | • ESTANKOA | • IMPERMUNGI |
| INMOBILIARIA | • MAKAILLO | • BARDEAK |
| • IRASTORZA | ARRAINTZAR | • AURTENETXE |
| • AGUSTIN | • IRIS MODA | • RAIMUNDA OGITEGIA |



Harrera hizkuntza: saltoki gehienetan euskeraz edo ele bietan izan ohi da: %19,36k beti euskeraz, %35,48k ia beti euskeraz, %38,71k ele bietan, eta %6,45k gehiena gaztelaniaz.



Auzoetako alkartekoekaz batera alkarlanean ◀



Baserri eremuak garrantzi eta pisu handia dauka Mungian eta horren erakusgarri dira daukaguzan auzo ederrak. Gure auzoek daukiezan beharizanez erantzun ona emateko, alkarlanean gabilz, auzokideekaz berba egiten eta esateko daukiena entzuten.

Gure auzoetako azpiegitura-zerbitzuak sendotzeko ahalegin berezia egiten dabil Udala. Datozan lau urteotan guztira 500.000€ bideratuko dira auzoetara. Aurten 125.000€ dagoz onartuta eta, gure auzoetan egingo diran inbertsinoak zelan gauzatuko diran erabagitzeko, parte-hartze prozesua zabalik daukagu, auzoetako alkarteetako kideakaz batera lehentasunak markatzeko. Udalak, beraz, auzo bakoitxak dituen beharizanak jasoten jarraituko dau.



Compromiso con nuestros barrios

Mungia cuenta con un entorno rural emblemático. Así lo demuestra el conjunto de barrios que se distinguen por la belleza de sus paisajes y espacios verdes. Con el objeto de mejorar y reforzar las infraestructuras de nuestros barrios, está abierto el proceso de participación ciudadana en el que el Ayuntamiento está trabajando conjuntamente con nuestras vecinas y vecinos, escuchando sus propuestas y hablando con ellas y ellos.

Para estos cuatro años de legislatura, 500.000€ serán destinados a nuestros barrios; este año ya están adjudicados 125.000€ y serán los vecinos y vecinas, junto con el Ayuntamiento, quienes marquen las prioridades para las que se destinará este dinero.

Mungia registra un descenso del desempleo del 8,54% ◀

Mungiak langabezia-tasaren %8,54ko jaitsiera erregistratu dau

Zezeileko hileak langabezia-tasaren zifra positiboak ekarri ebazan. Izan bere, Mungiako langabeen kopurua, pasa dan urteko zezeilekoagaz alderatu ezker, 98 lagun gitxiagokoa izan da. Beraz, %8,54ko beherakada jasan dau langabeziaren tasak gure herrian.

Nahiz eta zenbaki horreek sano pozgarriak izan, Mungialdeko Behargintzak bere lanari ekingo deutso, 2015ean egin eban moduan, hau da, 265 laguni lanpostuak lortzen lagundu deusie, 31 negozio zabaltzea lortu dau eta enpresa propioak egiteko erreminta eta zerbitzuak eskaini dauz.

98 personas desempleadas menos que en febrero de 2015

Febrero trajo consigo cifras alentadoras con las que seguiremos trabajando para reducir la tasa del paro en nuestra localidad. Y es que el número de personas desempleadas de Mungia se ha visto reducido en 98 personas en comparación con febrero de 2015,




produciéndose así un descenso del 8,54%.

El ejercicio ha finalizado con 1.518 personas de Mungialdea desempleadas inscritas en los Servicios Públicos de Empleo. De estas, 1.050 son residentes de Mungia.

La localidad cerró el ejercicio de 2015 con una tasa de paro del 12,1%, inferior a la de Bizkaia (con 15,8%), y la de Euskadi con 14,5%. Nos encontramos en los niveles de desempleo de los ejercicios de febrero de 2011 y 2012, habiendo alcanzado en el ejercicio de febrero de 2014 el nivel más elevado en cuanto a número de personas desempleadas registradas.

Para lograr estas nuevas cifras positivas, en 2015 Mungialdeko Behargintza ha conseguido que 265 personas hayan accedido a puestos de trabajo, apoyó la apertura de 31 negocios (17 del sector servicios, 7 de comercio, 4 de hostelería y 3 ligados a la agricultura y/o sector primario) y ha asesorado a 93 vecinas y vecinos sobre la creación de su propio negocio, ofertándoles servicios de acompañamiento técnico y tutorización y efectuando 11 talleres para personas emprendedoras y 3 cursos de gestión empresarial.

EVOLUCIÓN INTERANUAL DEL NÚMERO DE PERSONAS DESEMPLEADAS REGISTRADAS EN MUNGIA (MESES DE FEBRERO)



Udalak kontratatutako herri-jagoleak ◀

Mungialdeko Behargintzak, garatzen dabilen Enplegu Planari lotuta, kontratu batzuk egingo dauz Gaztaroa enpresaren bitartez zenbait proiektu gauzatu ahal izateko.

Kontratu horreetariko bat urrian egin zan. Herri-jagole bi kontratatu ziran 6 hilabeterako eta lanaldi erdian, goizeko 9:00etatik 13:00etara. Hasiera baten behintzat, euren lana egun guztietan herritik buelta bat emotea da, hobetu edo

konpondu beharreko gauzak detektatu eta lurralde arlokoei informazinoa pasatzeko.

Egun baktxean ibilbide ezberdinak finkatu eta egiten dabez, leku publikoak zer egoeratan dagozan ikusteko: kolunpioak, kaleko altzariak, pintadak, espaloiak... Herria jagon egiten dabe, modu orokorrean.

Herri-jagole ak urrian hasi ziran lanean, eta Udalaren ezkutua daroan uniformea jantzita beteten dabe euren beharra.



Herri-jagoleak 6 hilabeterako kontratua daukie, lanaldi erdikoa.

El ayuntamiento contrata personal cuidador del pueblo

El pasado octubre se contrataron dos personas con jornada parcial durante seis meses para que se ocuparan del cuidado de nuestras calles. En principio, su labor es recorrer la localidad y detectar cosas que se deben mejorar o arreglar. Cada día realizan un recorrido distinto observando los columpios, el mobiliario urbano, las pintadas, las aceras y demás espacio público para asegurarse de que están bien.

Pintxoak egiteko ikastaroa ◀

Bentades Ikastetxearen sukaldeak pintxoak egiteko ikastaroa hartu dau bere instalazioetan zezeilaren 10etik martiaren 3ra arte. Ikastaroan 12 mungiarrek hartu dabe parte, 9 emakumek eta 3 gizonak; ikastaroa 50 ordukoa izan da eta arratsaldero antolatu da, 17:00etatik 20:00etara bitartean.

David López Coque-ren eskutik, oinarritzkoak eta egile-pintxoak deitzen jaken pintxoak egiten ikasteko aukera izan dabe.

Udala Lanbidegaz tramiteak egiten dabil babes juridikoa lortu ahal izateko eta, horren bidez, Mungiako ostalaritza-establezimenduetan praktikak egin ahal izateko, hain arrakastatsua izan dan ikastaro honi amaiera bikaina emoteko.



David López Coque sukaldaria, pintxo landuak prestatzeko truku interesgarriak irakasten tailerraren saio baten.

Curso de elaboración de pintxos

La cocina de Bentades Ikastetxea ha acogido un curso de elaboración de pintxos con David López Coque como formador, donde han participado 12 mungiaras. Desde el Ayuntamiento estamos en tramitaciones con Lanbide para poder realizar prácticas en establecimientos de hostelería de Mungia como broche final.

Carnavales *animados* en la hostelería

14 bares participaron en el primer concurso hostelero de carnaval

El pasado febrero se celebró por primera vez el Concurso de Hostelería Carnavalería de Mungia, evento en el que 14 bares mostraron su imagen más divertida y animada, decorando sus locales y disfrazándose acorde a la temática que este año se ha propuesto por primera vez para la fiesta de carnaval: dibujos animados.

La actividad organizada por Mungialdeko Behargintza, con la colaboración de la Asociación de Comerciantes y Hosteleros de Mungia, premió el trabajo de las personas hosteleras.

Queremos felicitar y dar las gracias a todos los bares participantes, ya que su trabajo ha sido digno de ver y totalmente loable. Es por ello que os animamos, tanto a vecinas y vecinos como al personal de hostelería, a disfrazaros y decorar vuestros bares el año que viene.

Los hosteleros y hosteleras decoraron sus locales en consonancia a la temática:

- Aketxe: LuckyLuke y los Hermanos Dalton
- Iker: Bob Esponja
- Jai Alai: Los Simpson
- Txomin: AngryBirds
- Txutxubis: Betty Boop
- Berezi: Asterix y Obelix
- Aterpe: El Mundo de Oz
- Ez EsanInori: Los Picapiedra
- Korrontzi: 101 Dálmatas
- Kos: Batman
- La Cabaña: Los Pitufos
- Laubide: Superhéroes
- TheNook: Alicia en el país de las maravillas
- Torpedo Gorria: Dragoi Bola Z



El alcalde Ager Izagirre y la concejala del Área de Comercio Nagore Torre (derecha) junto a las premiadas.

- **Premio al Mejor Local:** Bar Aterpe, según la valoración del jurado.
- **Premio al Local Favorito:** Bar Berezi, escogido a través de la alta participación que hubo en la votación popular con más de 900 votos recibidos en Facebook.
- Los representantes de los locales ganadores recibieron un trofeo y un cheque valorado en 400€ cada uno.
- Entre los y las participantes en la votación popular se sorteó un **pack de tres vales a consumir en los bares participantes**, siendo la afortunada Ainhoa Ríos Velasco.

14 tabernak hartu eben parte Aratusteetako ostalaritza-txapelketaren lehenengo edizinoan

Joan dan zezeilean egin zan lehenengoz Aratusteetako Ostalaritza-txapelketa. Txapelketa horretan, 14 tabernak, umorerik onena erakutsita, euren lokalak apaindu eta langileak mozarrotu ebezan, horretarako aurtengo inauterietarako lehenengo aldiz proposatu dan gai nagusia erabilita: marrazki bizidunak. Mungialdeko Behargintzak, Mungiaiko Merkataria eta Ostalarien Alkartearen laguntzagaz, antolatutako ekintza honek ostalarien lana saritu eban.

Horretara, Lokalik Onenaren saria *Aterpek* jaso eban eta Herritarrei Gehien Gustatu jaken lokalaren saria, barriz, *Berezik*. Azkenengo horrek Facebook bidez mungiarrek emondako 900 botoei esker lortu eban bere saria.

Ekimen honetan parte hartu dozuen taberna guztiei zorionak emoteaz ganera, eskertu egin gura deusuegu egindako behar handi hori. Datorren urtera begira, bai auzotarrak eta bai ostalariak bere animatu egin gura zaituegu mozarrotu zaitezen eta zuen tabernak apaindu daizuezan.



Mungiak bere produktu lokalak erakutsi ebazan GustoK0 Azokan



Mungiako Udalak jarritako postua feriako bisitatuenetako bat izan zan.

Zezeilaren 13, 14 eta 15ean BEC-en antolatu zan GustoK0 Azokan hartu eban parte Mungiako Udalak; hau da, Kalitatearen eta Jatorrirako itzuleraren aldako Azokan. Bertoko produktuen, eskuz egindakoen eta kilometro 0-koen alde egiten dauen azoka horretan, Mungiak bere produktu gastronomikoen alde egin eta indabak, txorizoak, barazki-odolosteak eta Mungiako artouruna aurkeztu zituan.

Mungiako erakusketa-postua, Nekane Madariaga dekoratzailearen lan bikainari esker, elikadura-produktuz eta gure baserrietako tresna zahar eta lanabesez jantzitako erakusketa ederra bihurtu zan. Gure baserrietan lehen egoten ziran suetea sortu eban eta bertaratu ziran guztien arreta erakarri eban lan horregaz. Horregaitik izan zan gure herriko postua BEC-en egozanen artean gehien bisitatu eta erretraturik gehien egin eutsienetarikoa.

Mungiak azokan parte hartzen dau 2007an egin zan lehen edizinotik hona; horren ganera, Gurizer

txokoan eratu zan Bilbao-Bizkaia slowfood deritxon mugimenduan sartuta dago hasikera-hasiketatik.

Edizino honetan 13.000 lagun inguruk parejeagotik ezagutu dabe Mungiaren gustua. **Morga Harategia**-ren eskutik, milaka pertsonak ezagutu eben txorizoak eta barazki-odolosteak egiteko prozesua zein dan. Bestalde, **Gure Ogia** eta **Berteiz** eta **Mendiondo** okindegiek, eurek lantzen dabazan ogi-ore desbardinaren ganeko azalpenak emon ebazan. Harategi eta okindegi horreek euren produktuak dastatzeko aukera emon eutsien lagun ugariri eta, horren ganera, bertara eroan eben jeneroa bere saldu egin eben. Esan beharrekoa da **Luis Azillonaren** taloa egiteko artouruna Mungiako produktuen beste izarretako bat izan zan. Azkenik, ezin ahaztu **Kepa Freirek** prestatutako bertoko indabak dastatzeko aukerea bere egon zala.

Mungia exhibió sus productos locales en la Feria GustoK0

El pasado febrero, el Ayuntamiento de Mungia participó en la feria GustoK0 Calidad y Origen que tuvo lugar en el BEC. En la feria, inspirada en el producto autóctono, artesanal y en defensa del km-0, nuestra localidad, una vez más, apostó por apoyar los productos gastronómicos locales como las alubias, el chorizo, la morcilla de verduras y la harina de talo.

Nuestro stand se convirtió en una bella exposición tanto de productos alimentarios como de antigüedades y elementos de nuestros baseris, siendo uno de los puestos más visitados y fotografiados del BEC.

Azokak arrakasta handia izan dau eta parte-hartzaileak poz-pozik agertu dira, bai esperientziagaz eta bai bertan egindako salmentakaz. Hori dela eta, GustoK0 Azokako hurrengo edizinoari, 2018an egingo danari, begi-keinuatzua egin deusagu dagoaneko.

Mungia trabaja por la inserción laboral de la juventud

Mungia beharrean dabil gazteak lan munduan sartzea bultzatzeko

Mungialdeko Behargintzak, proiektuari atxikita dagoan agentzia danez, HAZILAN Proiektua garatzeko lan egiten dabil. Proiektu horren helburua 20 eta 35 urte bitarteko gazte kualifikatuak lan munduan txertatzea da. Gaitasun profesionala hobetzeko eragiten daben zerbitzu eta errekurtsio indibidualak eskaintzen dituan proiektu honen abiaburua Akitibatu Programa izan da Mungian, hain zuzen bere hile honen 11n. Taldea 20-25 pertsonak osatzen dabe eta horri esker trebetasun pertsonal eta profesionalak barneratuko dabez eta, horren ganera, lan-merkatuan kokatzen ikasiko dabe. Horren ostean, enpresa proiektu bat egin edo praktikak egiteko aukera izango dabe.

Mungialdeko Behargintza está llevando a cabo el proyecto HAZILAN con el objetivo de conseguir la inserción laboral de personas jóvenes cualificadas de entre 20 y 35 años. HAZILAN ofrece servicios y recursos especializados que se adaptan a las características individuales de cada participante con el fin de incidir sobre su empleabilidad.

Este persigue la activación laboral, la mejora de las competencias socio profesionales transversales, la mejora de la capacitación profesional y la adquisición de experiencia laboral.

Las personas que se han adscrito al proyecto para dar una oportunidad de ejecutar los programas no tendrán coste económico alguno.

En el Programa Aktibatu, primera fase de HAZILAN, se inicia el proceso de acompañamiento para la inserción y activación

Jarri harremanetan HAZILANarekin

HAZILAN programa unibertsitate-afiliazio edo goi-mailako prestakuntza-afiliazio baten bidez lanbidean sartzen duen 20-35 urteko gazteentzako informazio gaitasun jarri-bardura, zure garapen agentzian edo www.hazilan.es webgunean top dezakezu.

Contacta con HAZILAN

El programa HAZILAN está dirigido a personas jóvenes entre 20 y 35 años que posean una titulación universitaria o un ciclo formativo de grado superior y se encuentren en situación de desempleo.

Si necesitas más información puedes informarte en tu Agencia de Desarrollo o en la web www.hazilan.es

"Ekitas has HAZILAN proiektuarekin batzen gitea da Euzkadi Herria 2014-2020 Programa Operatiboko bidez. Proiektu horren finantzaketa-eremua NSRF, hain zuzen ere, EGF-ek ematen du eta GARAPEN (Garapen Agentzia Euzkadi Ekarleko Koordinatzailea) da."

"Esta actuación se desarrolla en el marco de POPV FSE 2014-2020 HAZILAN, cofinanciado en un 50% por FSE, y la coordina GARAPEN (Asociación Vasca de Agencias de Desarrollo)".

Lana lortzeko bidea

Tu camino hacia el empleo

Lana lortzeko bidea

PRESTATUTU AL ZAUDE BENETAN?

Unibertsitate-afiliazio daukazu edo goi-mailako prestakuntza-afiliazio egina duzu, baina ez duzu zure lortu aurrizketen, ez duzu zure ezagutza eta jenerak garatu ahal izateko lanek aurrizketen. Ordu prestatuta zaudela uste al duzu? Bai al dakizu lanerako aldiak nola irabazten dituzte eta gakoak zein diren? zure lanbide-karreraren atzeki irakial izango ditzituzten gakoak?

HAZILAN programak etorkizuneko proiektak dituzten enpresak identifikatu ditu eta lan bati lortzeko bider dituzten baldintzek ematen dizkizu.

IKASI ZURE GAITASUNAK KUDEATZEN

Lan-bizitzarako ezinbestekoak diren ezagutza botatzek ez dira nahigaiten inaketen, hala nola, behar bezalako komunikazioa, zure alde indartsuak ezustazten jakitea, ekarriaketa bati gaitortzea, esperientzia hartzea, enpresaren lantokian sartzea ezagutzea edo lortu nahi dituzan lanpostuaren inguruko prestakuntza lortzea.

HAZILANek zure gaitasunak aztertzen eta kudeatzen lagundu ditu, eta prestakuntza eta proiektu enpresakiko dizkizu gaitasun horiek praktikan jartzeko, laneratzeko bide eta aukarak hobetuzko.

HAZILANek BENETAKO PREMIEI ERANTZUTZU DIE

HAZILAN programak zure premietara erantzukizun bereetako erantzukizun emango dizkizu. Programa horren abantaila da esperientzian oinarritutako kasuetan proiektuak izatea, enpresak eskatu dituzten benetakoak diren eta urteko irabazien bidezkoak diren erantzukizunak izateko. Lehenik, baldin bati definitutako dizugu, zure gaitasunak indartu ahal izango dira. Ondoren, aukera emango dizugu enpresaren praktikan erabiltzeko, irabazien prestakuntza zehaztasun jasoetako edo enpresaren bertan proiektuak garatzeko.

HAZILAN programak hainbat bide ditu: Akabitu, Kokatu, Lanekin eta Talentu Bidea.

www.hazilan.es



Zure harremanetan **HAZILANekin**

Zure enpresan, haziako eta proiektu berriak garatzeko, lantalde eraginkor eta inplikatu bat nahi baduzu, eskuratu informazioa zure garapen agentzian edo www.hazilan.eus webgunean.

Contacta con HAZILAN

Si quieres que tu empresa crezca con un equipo capaz e implicado, para el desarrollo de nuevos proyectos y actividades, puedes informarte en tu Agencia de Desarrollo o en la web www.hazilan.eus

"Ekintza hau HAZILAN proiektuaren baitan egia da Euskal Herriko 2014-2020 Programa Operatibaren bidez, Proiektu horren finantziatzaileko funtsei %50, hain zuzen ere, EGF-ek ematen du eta GARAPEN Agenteak Euskal Ekialdeko koordinatzaile da".

"Esta actuación se desarrolla en el marco de POP FSE 2014-2020 HAZILAN, cofinanciado en un 50% por FSE, y la coordina GARAPEN (Asociación Vasca de Agencias de Desarrollo)".





Zure lanarekin

HAZILAN

con el empleo

Lantalde on bat eratzeko gakoa

La clave para formar un buen equipo

PERTSONA EGOKIAK

Enpresa-proiektu baten arduradoren gakoa pertsonak dira. Merkatuari lehiatu ahal izateko ezinbestekoa da ondo gaiturako, enpresa-proiektuan inplikaturako eta behar bezala motibatutako lantalde bat izatea. Horregatik, pertsonak egoki hautatu eta kudeatzeko funtsezkoak dira enprezentzat.

HAZILAN programak enpresaren premiak identifikatu eta proiektuaren alorrean nahi diren enpresaren harkundetarako inplikaturako lantaldeko sortzeko behar diren kompetentziak eta gaitasunak emango dituen pertsonak.

TREBAKUNTZA EZ DA NAHIKOA

Oinarrituriko eta trebakuntza tekniko egokiak izatea, baina hori, beste-rik gabe, ez da azuki. Enpresek ekimena eta sormena duten eta bere kabuz moldatzen duten pertsonak behar dituzte, berritzaile, erakle, kerkatzaile, taldeak lan egiten eta enpresek helburuan eta emaitzen arabera kudeatzen duten pertsonak. Kompetentzia eta gaitasun horiek guztiak ezinbestekoak dira, baina askotan ez dira kudeatze-erakundeetan eskuratzen.

HAZILAN programak trebakuntza-maila handia duten gaitzaileak (20-35 urte) lan egiteko du gaitze horiek prestabako alorrean, beren gaitasunak enpresa garatzeko.

laboral de manera individual y grupal, adquiriendo competencias personales y profesionales y aprendiendo a ubicarse en el mercado. Esta fase se está desarrollando en Mungialdeko Behargintza desde el 11 de abril.

En Mungia se ha creado un grupo de 20-25 personas que, tras pasar por el Programa Aktibatu, se incorporarán al Programa Talentu Ihesa, desarrollando de un proyecto empresarial al Programa Kokatu, donde realizarán prácticas.



Mungirock eraikinak eskaintza zabala dauka mungiarrentzat



El edificio Mungirock tiene una amplia oferta para las y los mungiaras

¡Ánimate a acercarte y conocer sus salas!

Mungirock es un edificio que tiene varios locales de ensayos para los grupos de música de jóvenes de Mungia. El equipamiento, habilitado con baños, también ofrece espacio para dar conciertos. Aún son bastantes las personas que no tienen del todo claro dónde está situado el edificio y, por ello, en el mapa aéreo os mostramos su localización exacta, entre el ferrial y el sindicato.

Son muchos los conciertos de estilos musicales variados que Azken Zarata Rock Elkartea organiza junto con el Ayuntamiento. La entrada a los eventos es gratuita y los eventos disfrutados hasta ahora pueden verse en la siguiente dirección web <http://www.azkenzarata.com/Conciertos.html>.

Animatu zaitezte, etorri eta ikusi!

Bertoko musika taldeentzako ensaio-lokalak eskaintzen dituan eraikina, *Mungirock*, nahiko ezaguna da gazteen artean. Halanda bere, argi dago herritar askok oraindik ez dakiela zehatz non dagoan lokal hori. Hori dala eta, artikulua honen bidez erakutsi gura deusuegu zelan heldu bertara.

Airetik egindako mapan ikusten dan moduan, *Mungirock* ferialekuaren eta sindikatoaren arteko tarte horretan dago. Bertan, kontzertu areto bat, ensaiatzeko gela bi eta komunak dagoz.

Azken urtean estilo ezbardinetako kontzertu asko eta asko eskaini dira bertako kontzertu aretoan, Azken Zarata Rock Elkartea –Udalaren laguntzagaz– antolatuta. Sarrera doakoa izaten da eta orain arteko kontzertuen zerrenda web orri honetan dago ikusgai: <http://www.azkenzarata.com/Conciertos.html>.

Mungirock-en maiatzean izango diran taldeak:

The Black Wizard (Portugal), Vircator (Portugal), Ian Manson (Bilbo), Dientes de luna (Gernika), Red Blaze (Ermua), Criminal Mind (UK) eta No Comply (Bilbo)

Mungirock-eko ensaio-lokalak erabilten dabezan taldeak:

Demeon, Desface, Txokolate Sexy, Santi Matxete, Eleven Lies, Bezain, Paraje, The Dimitris, Eskaintza, All I Need You, Lupara, D'Plebermun.

Este año como novedad, se ha actualizado la normativa de uso de las instalaciones, formando una comisión de seguimiento de la actividad. Esta se reunirá cada dos meses con el objetivo de velar por la convivencia entre distintos grupos, analizar las necesidades de las personas usuarias y plantear posibles soluciones a los problemas.

ASAU BARIK! ginkana birtualak harrera ona izan dau gazteen artean

Ekimen honek herriko euskara eta ingurua ezagutzea sustatzen dau

Bere lehen edizioan, 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendutako ginkana birtualak harrera positiboa izan dau, izan bere, 19 taldek emon dabe izena.

Udalak eta Gazteguneak martxan jarritako ginkanan, parte-hartzaileek herriko ondareagaz eta teknologia barriakaz zerikusia daukien 5 proba gainditu beharko dabez ordenagailu bidez. Asterik

behin proba dibertigarri bat argitaratu da Gaztegunearen Facebook atarian (www.facebook.com/mungia.gazte) eta partaideek erronka guztiak gainditu behar dabez saria eskuratzeko.

Erronka guztiak gainditzen dabezanen artean 600€ banatuko dira bono saritan. Irabazleak nortzuk izango diran erabagiteko, sistema mistoa erabiliko da, herritarren eta epaimahaiaren botoak kontuan hartuta. Sari-banaketa hil honen 29an egingo da Gaztegunean.



La gincana virtual ASAU BARIK! consigue atraer a la juventud en su primera edición.

Mungialdeko herriek gazteria-politika lantzeko GazteMUB taldea sortu dabe

Lana, gurasoen etxetik urtetako baldintzak... holango gaiak landuko dauz talde honek

Mungialdeko udalek alkarlanean jarraitzen dogu gazteriaren aldeko proiektuetan. Horren adibide dogu sortu barria dan GazteMUB taldea. Urtarrilean eskualdeko talde politikoak eta teknikoak batu egin ziran jardunaldi berezi batzuk antolatzeke, hain zuzen bere, gazteria-politika bateratua martxan jarriko dauen lantalde bat sortzeko jardunaldiak. Bertan, Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Maruri-Jatabe, Meñaka eta Mungiako Udaletako ordezkariak egon ziran.

GAZTEAKAZ JOAN-ETORRIKO KOMUNIKAZINOAZ SORTZEA IZANGO DA PROIEKTU HONEN ARDATZA.

GazteMUB deituriko lantalde horren helburua, eskualdeko gazteen egonezinak jasotzen dabezan komunikabide bidirezionalak

sortzea da, udalen jarduna gazteengana parajetuteko eta, era berean, gazteak eurak bere udal proiektuetara ekarteko. Horretaz ganera, ekimenak alkarlanean planifikatzea eta gure eskualderako egokiak diran jarduerak eskaintzea espero dogu. Azken baten, lortu gura dana zera da: batetik, gazteak maila pertsonalean gogobetetea; eta bestetik, udal-programakaz daukien erlazinoa hobetzea, lankidetzaren eta parte-hartzearen bidez.

Orain arteko batzarretan, taldeak beharrerako erabiliko dauen metodologia zein izango dan zehaztu da. Horren ganera, herri bakoitzak gazteriaren inguruan detektatutako beharrianak kontutan izanda, orain arte urtero gauzatu doguzan egitarauak aztertuko dira, alkarlana bultzatuta. Lankidetzaz horren lehengo emaitza guztion artean prestatzen gabilzan Gazte Plana izango da.

La comarca de Mungia elabora políticas de juventud

Una vez reunido en enero el personal técnico y diversos cargos políticos de los ayuntamientos de Mungialdea, se ha creado un equipo de trabajo con el fin de poner en marcha políticas de juventud.

El objetivo de este equipo, denominado GazteMUB, es atraer y acercarse a la juventud de la comarca creando vías de comunicación bidireccionales que recojan sus inquietudes. Asimismo, se desea planificar actividades conjuntas y ofertar actuaciones adecuadas al entorno. En definitiva, trabajar conjuntamente para mejorar la satisfacción de la juventud a nivel personal y en lo que refiere a su relación con programas municipales.

Mungiak ordainketa-pasabide barritzailea jarri dau



Sistema barria badago erabilgarri Udaleko webgunean.

Nire Ordainketa deituriko sistemak zerga-zorren ordainketa Internetetik egitea ahalbidetzen dau

Eusko Jaurlaritzagaz egindako hitzarmen baten ondoren, Mungia Udala borondatezko aldian zerga-zorren ordainketa egiteko ere

emoten dauen sistema eroso eta segurua eskaintzen dau zergadunentzat. Sistema hau Euskal Administrazioaren Nire Ordainketa izeneko ordainketa-pasabidearen bitartez egingo da.

Ordainketa-modu hau erabilgarri dago eguneko 24 orduetan, eta horri esker saihestu egingo jake

herritarrei bai joan-etorriak egitea eta bai ilaretan itxaroten egotea bere.

Horretarako jarraitu beharreko pausoak:

- 1- Euskal Administrazioaren ordainketa-pasabidera sartu.
- 2- Ordainagirian dagozan datuakaz formularioa bete eta **Onartu** botoiari sakatu.
- 3- Sartutako datuak zuzenak dirala egiaztatu eta **Ordainketari ekin** botoiari sakatu.
- 4- Ordainketa zein erakunde laguntzailetan egin gura dan aukeratu eta **Onartu** botoiari sakatu.

Ordainketari ekiteko, beharrezkoa da Mungia Udala igorritako ordainagiria izatea. Behin eragiketa bukatuta, aukeratutako erakunde laguntzaileak ordainketaren frogagiri bat igorriko dau, eta horrek erabateko balioa daukan Udalaren aurrean.

Mungia habilita una novedosa pasarela de pagos

El sistema Mi Pago permite realizar el abono de deudas tributarias por Internet

El Ayuntamiento de Mungia, tras un acuerdo con el Gobierno Vasco, a través de la pasarela de pagos de la Administración Vasca Mi Pago, ofrece un sistema cómodo y seguro que permite realizar el pago de las deudas tributarias de los contribuyentes en periodo voluntario.

Esta modalidad de pago, está operativa las 24 horas del día, evitando desplazamientos innecesarios, así como colas de espera.

Los pasos a seguir se detallan a continuación:

Paso 1 – Acceder a la pasarela de pagos de la Administración Vasca.

Paso 2 – Rellenar el formulario con los datos que encontrará en el recibo y pulsar el botón **Aceptar**

Paso 3 – Validar que los datos introducidos son correctos y pulsar el botón **Proceder al pago**

Paso 4 – Seleccionar la entidad colaboradora en la que desea realizar el pago y pulsar el botón **Aceptar**

Para proceder al pago es necesario tener el recibo emitido por el Ayuntamiento de Mungia.

Una vez finalizada la operación, la Entidad colaboradora le expedirá un justificante del pago, el cual tiene total validez ante este Ayuntamiento.

Matrikulazio Epeak

Fechas de inscripción

IGERIKETA IKASTAROA CURSO DE NATACIÓN

Datak-Fechas: garagarriaren 5etik 29ra-Del 5 al 29 de Julio

Taldeak-Grupos:

4 eta 15 urte bitarteko umeak-Niñas y niños de 4 a 15 años
16 urtetik gorakoak- Mayores de 16 años

Ordutegiak-Horarios:

Umeak-Niñas y niños (1): 10:00-10:45

Umeak-Niñas y niños (2): 10:45-11:30

Umeak-Niñas y niños (3): 11:30-12:15

Umeak-Niñas y niños (4): 12:15-13:00

Umeak-Niñas y niños (5): 13:00-13:45

(Behin-behinekoa-Provisional)

Nagusiak-Personas adultas (1): 10:00-10:45

Nagusiak-Personas adultas (2): 13:00-13:45 (Behin-behinekoa-Provisional)

Izen-emotea-Inscripción:

- **Bagilaren 4tik 6ra, Kiroldegian.** Del 4 de Abril al 6 de Junio en el Polideportivo.
- **Plaza-kopuru mugatua.** Lehenetsuna daukie Mungian erroldatuek. Plazas limitadas. Tienen preferencia las niñas y niños con empadronamiento en Mungia.
- **Onartuen zerrendea bagilaren 13an argitaratuko da Udal Kiroldegian.** El 13 de Junio se publicará la lista de personas admitidas en el Polideportivo Municipal.
- **Bonifikazioak Mungian erroldatuentzat.** Bonificaciones para las personas con empadronamiento en Mungia: Familia-unidade bereko bigarren matrikulan (%10), hirugarren matikulan eta hortik gorakoetan (%20). La segunda matrícula dentro de una misma unidad familiar, tendrá el 10% de bonificación. La tercera y restantes el 20%.

Prezioa-Precio:

Abonatuak-Personas abonadas: 37,15 €

Abonatu bakoak-Personas no abonadas: 86,10 €

KIROL ASKOTAKO IKASTAROA CURSO DE MULTIDEPORTE

Datak-Fechas:

1. TXANDEA: garagarriaren 5etik 15era

1ª TANDA: del 5 al 15 de Julio

2. TXANDEA: garagarriaren 18tik 29ra

2ª TANDA: del 18 al 29 de Julio

Adina-Edad: 7-10 urteko umeak- Niñas y niños de 7 a 10 años

Ordutegia-Horario: 11:00etatik 13:00tara

De 11:00 a 13:00 horas

Izen-emotea-Inscripción:

- **Bagilaren 4tik 6ra, Kiroldegian.** Del 4 de Abril al 6 de Junio en el Polideportivo.
- **Plaza-kopuru mugatua.** Lehenetsuna daukie Mungian erroldatuek. Plazas limitadas. Tienen preferencia las niñas y niños con empadronamiento en Mungia.
- **Onartuen zerrendea bagilaren 13an argitaratuko da Udal Kiroldegian.** El 13 de Junio se publicará la lista de personas admitidas en el Polideportivo Municipal.
- **Bonifikazioak Mungian erroldatuentzat.** Bonificaciones para las personas con empadronamiento en Mungia: Familia-unidade bereko bigarren matrikulan (%10), hirugarren matikulan eta hortik gorakoetan (%20). La segunda matrícula dentro de una misma unidad familiar, tendrá el 10% de bonificación. La tercera y restantes el 20%.

Prezioa-Precio:

Abonatuak-Personas abonadas: 53,10 €

Abonatu bakoak-Personas no abonadas: 87,70 €

ADI! Ibilgailuen ganeko Zerga ordaintzeko epea: apirilaren 1etik maiatzaren 2ra, biak barne.

ATENCIÓN! Periodo voluntario de pago del Impuesto de Vehículos, del 1 de abril al 2 de mayo, ambos inclusive.

SANTOS INTXAUSTI MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA

Gure eskolak hau eskaintzen deutsue:

- **Musika heziketa ez arautua,** musikea ikasteko gogoia daukazen guztioi.
- **Musika irakaskuntzan eskaintza zabala,** joera guztiak hartzen dituana; eta euskal dantzak ikasteko aukerea bere emoten dogu.

Gure helburu nagusia:

- **Musikarako zaletasuna daukien guztien interesak bideratzea da.** Ez dago mugarik edadean, eta lana taldekakoa edo bakarkakoa izan leiteke.
- **Izena emoteko epea:** maiatzaren 2tik 13ra (biak barne)
- **Zozketa eguna:** maiatzaren 16an, 9:30ean.
- **Onartuen eta baztertuen zerrendea:** maiatzaren 19an, 10:00etatik aurrera.
- **Matrikulatzeko epea:** maiatzaren 20tik 27ra bulego ordutegian.

Os ofrezemos:

- **Enseñanza musical** no reglada a todas aquellas personas que tengáis interés por aprender música.
- **Para ello,** ofrezemos una amplia oferta en la enseñanza instrumental abierta a todas las tendencias, incluida la euskaldantza.

Nuestro objetivo principal es:

- **Encauzar el interés musical** de personas aficionadas de cualquier edad en el aprendizaje instrumental.
- **Plazo de inscripción:** del 2 al 13 de mayo (ambos incluidos).
- **Fecha del sorteo:** 16 de mayo a las 9:30 h.
- **Lista de personas admitidas y no admitidas:** 19 de mayo a partir de las 10:00.
- **Plazo de matriculación:** del 20 al 27 de mayo en horas de oficina.

Euskal Dantzak. 5 urtetik aurrerakoentzat. Taldeak edadearen arabera osotuko dira.

Curso de Danzas Vascas. A partir de los 5 años. Se crearán grupos según la edad.



Mungia renovará el césped artificial del campo de fútbol



El campo de fútbol verá mejorado su aspecto y calidad con el nuevo césped.

Desde el Ayuntamiento trabajamos para ofrecer las mejores instalaciones deportivas. Entre ellas, nos hemos centrado en el campo de fútbol de Legarda donde se retirará

Legardako futbol-zelaiak bedar barria eukiko dau

Udalak ahalegina egiten dau kirola egiteko ahalik eta instalazio onenak eukiteko. Horri lotuta, besteak beste, Legardako futbol-zelaia hobetzeko beharrari ekin deuto; izan bere, orain dagoan bedarrak 13 urte deroaz bertan. Horretarako, Udalak 168.146,05€ (Bez barne) inbertituko dauz bedar barria iminteko, hau da, 18,96€/m²-ko.

Kolore biko bedar artifizial honek 60 mm-ko altuera izango dau eta, ingurumenaren kalidadearen arloan, ISO 14001 arauari jarraituta fabrikatzen da.

el césped artificial de 13 años de antigüedad y se sustituirá por uno nuevo.

Para ello, se han destinado 168.146,05€ (IVA incluido), es decir, 18,96€ por metro cuadrado. Un proyecto para el que se ha contado con la participación ciudadana, entidades que mayoritariamente utilizan el espacio deportivo y personal experto en la materia con el objeto de ofrecer una calidad óptima en el desarrollo del juego del fútbol.

El césped bicolor de 60 mm. de altura se caracteriza por su alta resistencia al calor y a variaciones climatológicas extremas

Este se fabrica de acuerdo con los sistemas de gestión de calidad medioambiental previstos por la norma UNE EN ISO 14001 en cuanto a diseño, desarrollo, producción, comercialización, instalación y mantenimiento de césped artificial.



La necesidad de acometer el cambio del césped artificial obedece al uso intensivo que se hace del mismo. Alrededor de 1.000 personas utilizan semanalmente el campo de fútbol. Con la sustitución integral del césped por uno de nueva generación, todas aquellas personas usuarias podrán disfrutar de un terreno de juego que favorezca la seguridad y comodidad en la práctica de este deporte.

Kirol Batzordea herritarrek parte-hartzeko beste gune bat izango da ◀

Mungiako kirol alkarte guztietako ordezkariak, kirol arloko teknikariak eta kirol zinegotziak osotzen dabe batzorde hau

Udala buru-belarri dabil sartuta Mungian kirola sustatzeko lanean, mungiar guztiei jarduera fisikoa praktikatzeko erraztasunak emateko asmoz. Horrexetarako sortu da Kirol Batzordea, kirol arloko alkarteek daukiezan arazoei danon artean konponbideak planteatzeko, herritarrekaz alkarlanean eta taldeen proposamenak guztion artean landu eta erantzuteko, beti bere, ikuspegi bateratua erabilita.

OHIKO BATZARRAK HILERO EGINGO DIRA, BAINA EZOHKOAK BERE EGONGO DIRA

Foro honetan Mungiako kirol alkarte guztietako ordezkariak, kirol arloko teknikariak eta kirol zinegotziak hartzen dabe parte.

Udaletik azpimarratu gura dogu zein garrantzitsua dan kirol alkarte guztiek bertan parte hartzea, danon artean, lankidetzan, asko bere errazagoa izango da-eta gure helburua betetea. Hezkuntzan, osasunean, ongizatean... arlo eta adin guztietan beteten dau zeregin garrantzitsua kirolak, eta errelidade horren jakitun, herrian kirol jarduera dinamizatzeko konpromiso sendoa hartu dau batzorde honek.

LEHENENGO BATZARRA

- Zezeilean egin zan lehenengo batzarra. Bertan, batetik, Kirol Asteko ekitaldien proposamena jarri zan mahai ganean, eta bestetik, kirol ekintzetarako emoten diran diru-laguntzen irizpideak birpasatu ziran eta egokitzeko proposamenak onartu ziran danon artean.

La Comisión de Deportes da sus primeros pasos

El Ayuntamiento continúa en su esfuerzo por promocionar el deporte para facilitar la actividad física a las y los mungiaras. Así, ha creado una Comisión de Deportes que se reúne una vez al mes, con el fin de favorecer la participación ciudadana y de solucionar los posibles problemas que les surjan a las asociaciones deportivas, trabajar sus propuestas y fomentar el trabajo en equipo.

La representación de todas las asociaciones de deportes de Mungia, personal técnico del área de deporte y el concejal de deporte participan en este foro para lograr los objetivos propuestos trabajando en conjunto.

Mungiako Udalak kirolaren eta kirolarien aldeko apustua egiten jarraituko dau ◀

Lagunak egiteko, hazten jarraitzeko, erronkak eta oztopoak gainditzeko, geure akatsetatik ikasteko..., labur esanda, geure burua eta bizitza gainditzeko bidea eskaintzen deusku kirolak, errespetua edo talde-lana bezalako balio garrantzitsuak irabazten doguzan bitartean.

Kirolaren garrantzi horren jakitun, aurtun Mungian jokatuko dira Bizkaiko Eskolarteko hogeita hamabosgarren edizininoko Kirol Finalak. Maiatzeko egun hauetan izango dira: 14an eta 15ean, eta 21ean eta 22an.

Modalidadeak:

- | | |
|-----------------------|---------------------|
| • Eskubaloia | • Xakea |
| • Futbol 5 | • Herri Kirolak |
| • Futbol 7 | • Karatea |
| • Futbol 11 | • Esku pelota |
| • Gimnasia Erritmikoa | • Pala |
| • Boleibola | • Bizikleta ginkana |
| • Aerobika | • Mendia |
| • Patinaje artistikoa | • Atletismoa |
| • Mahai-tenisa | |



Finales de los Juegos Escolares de Bizkaia

Mungia apuesta por el deporte y su práctica, acogiendo en mayo las Finales de los Juegos Escolares de Bizkaia en todas sus disciplinas.

El taller de iniciación a la carrera femenino es acogido con entusiasmo

El taller para correr nace con el objeto de impulsar la salud y conseguir que cada vez sean más las mujeres que se animen y practiquen esta actividad deportiva.

EL TALLER OFRECE DISTINTOS HORARIOS Y NIVELES PARA FAVORECER LA CONCILIACIÓN DE LA VIDA FAMILIAR, LABORAL Y DEPORTIVA

El taller dio comienzo el pasado marzo con una charla teórica en la que se trataron: las lesiones y la alimentación específica para mujeres y el cuidado del suelo pélvico.

Contando con una monitora personal profesional, el taller gratuito ha tenido muy buena acogida y ya hay alrededor de 100 inscripciones. Es una buena oportunidad para iniciarse en este deporte, ya que se han creado



El taller de iniciación a la carrera está siendo bien acogido y ya hay alrededor de 100 inscripciones.

grupos en distintos horarios y niveles para favorecer la conciliación de la vida familiar, laboral y deportiva.

Las interesadas en apuntarse o recibir más información pueden llamar al polideportivo municipal en el teléfono 94.674.34.12.

Emakumeentzako karradera egiten hasteko tailer barriak harrera paregabea izan dau:

Emakumeen osasuna bultzatzea eta andrak kirolaren praktikara parajetutea da tailer honen helburu nagusia. Arrakasta ikaragarriagaz hasi da, izan bere 100 andra inguruk emon dabe izena parte hartzeko.

Munduko Pala Txapelketak frontoia biztu egin dau

Udabarri honetan Munduko Pala Txapelketak ekarritako partiduez gozatzeko aukera izan dabe mungiarrek, eta ondo aprobetxatu bere, frontoia bete-beterik egon da eta partidu guztietan.

Txapelketaren formatua barria izan da. Binakako partiduak jokatu dabez (bi aurrelari eta bi atzelari) baina bikote finkoak osatu barik, hau da, aste bakoitzean bikote barriak osatzen izan dira. Horretara, danek jokatu dabe danen kontra.

Gaubeka, Fusto, Necol eta Landeta –azken hau mungiarra– izan dira lau aurrelariak, eta Ibargarai, Imanol, Ibai Perez eta Brefel atzelariak.



Pala txapelketako partidu guztietan bete da frontoia. INN PALA

Munduko Pala Txapelketaren sei jardunaldien ostean, jokalarri hauek izan doguz finalean:

Fusto—Brefel

Gaubeka—Imanol

Campeonato Mundial de Pala

Mungia ha demostrado su afición por la pala abarrotando, durante siete fines de semana, el frontón municipal para disfrutar del Campeonato Mundial de Pala por Parejas en el que ha tomado parte el mungiarra Ander Landeta.

Duatloiaren zortzigarren edizinoak aurrera egin eban eguraldia kontra izanda bere

La octava edición del duatlón eliminó la sección ciclista debido a la intensa lluvia y el viento. Sin embargo, casi 90 atletas participaron en la prueba.

Zezeileko Duatloiak eguraldiari aurre egin behar izan eutsan, izan bere, asteburu horretan uriola arriskuan egon ginan eta kirol-proba hau hasi baino ordu bete eta erdi lehenago oraindik Ertzaintzak emon barik eukan duatloiaren zati bat (21 kilometroko bizikleta lasterketa) egiteko baimena, arriskutsua zala eta.

Akabuan lasterketa aldatu eta oinezko frogari beste 2,5

kilometroko zirkuitua erantsi jakon, guztira 10 kilometroko ibilbidea. Lehiaketa puntuagarria izan ez arren, ia 90 kirolarik hartu eben parte.

Adi! Barriak!

- Garagarrilaren 15, 16 eta 17an jokatu dan Munduko Paracycling Txapelketako (2016) egoitzetako bat Mungia izango da.
- Erlojupeko proba gure herrian izango da garagarrilaren 17an.
- Beste urte batzutan egindako zirkuitu bera burutuko da, baina aurtengoan Mundialaren parte izango da.



Eguraldia kontra euki arren, partaideak ez ziran kikildu eta aurrera egin eben.

La Herri Krosa sigue consolidándose en su decimoséptima edición



En el evento tomaron parte alrededor de 576 personas adultas y 900 jóvenes que dieron lo mejor de sí mismos.

En este caso el tiempo si colaboró con los y las participantes de la decimoséptima edición del Herri Krosa de San Antontxu. 576 atletas senior y 900 niñas y niños disfrutaron de una jornada en

la que comenzaron corriendo las y los menores de 7 años que realizaron un recorrido de 600 metros. Seguido, fueron muchos y muchas quienes participaron junto a sus progenitores,

amistades y también como parte de asociaciones deportivas de la localidad.

Las y los atletas jóvenes dieron paso a las personas adultas que tomaron parte en la iniciativa en dos categorías con recorridos de cinco y diez kilómetros.

San Antontxuko Herri Krosa gero eta indartsuago

17. edizino honetan San Antontxuko Herri Krosean 1.500 atleta inguruk hartu eben parte. Ume eta gazteez ganera, nagusien kategorian bi sailkapen egon ziran, 5 eta 10 kilometrokoak.



Mantengamos nuestro pueblo limpio ◀



Quienes posean animales deben cumplir su compromiso con la sociedad y ocuparse de que los excrementos de sus mascotas no queden descuidados.

Euki daigun garbi gure herria

Mungiako Udalak ahalegin ekonomiko handia egiten dau herriko kaleak garbi eukiteko. Egunero-egunero garbitzen dira uragaz, baina gune publikoak txukun egoteko ardurea danona da. Hau da, kale, parke, lorategi, berdegune eta generako lekuak errespetatu egin behar doguz eta txakurren kakak batzeko boltsak erabili beti; eta, erabili ostean, paperontzira bota. Animaliak Edukitzea eta Babestea arautzen duen Udal-Ordenantzea oso zorrotza da gai horretan eta txakurren jabeentzako arau argiak ezartzen ditu, hain zuzen bere herritar guztion arteko alkarbizitza hobea izan daiten.

Se pide la colaboración ciudadana para mantener las calles libres de excrementos animales

El Ayuntamiento recuerda la obligación de respetar la Ordenanza Reguladora de la Tenencia y Protección de Animales. En particular, se subraya la obligación de recoger los excrementos de los animales de la vía pública y de los espacios verdes habilitados para el recreo de las mascotas.

Desde el Ayuntamiento se realizan arduas tareas de limpieza de las zonas afectadas por los excrementos de los perros. Es por ello que se pide la colaboración ciudadana para mantener limpias

y en las mejores condiciones las calles de nuestro pueblo.

La infracción de la Ordenanza puede acarrear una multa superior a los 30 euros.

En este sentido, queremos hacer un llamamiento de concienciación a todos los propietarios y propietarias de perros para que se responsabilicen de recoger los excrementos y depositarlos en la basura.

El civismo es clave para que Mungia esté siempre limpia, podamos pasear en un entorno agradable y ofrezcamos una imagen de calidad a las personas que nos visitan.

Mungiako Udalak iraunkortasunaren aldeko apustua egiten dau Aktibatu+ programeagaz

parte hartu eta irabazi!



¡participa y gana!

Etxebizitzetan lortutakoa

- 73 udalerritan garatu da.
- 1.500 pertsona inguruk hartu dau parte.
- Emaizta positiboak: energia kontsumoan %5,8ko aurrezpena, uretan %2,9koa, %1,9ko hondakin gutxiago sortu da CO2, isuriak %1,7 murriztu dira.

Aktibatu+ Bizkaiko Foru Aldundiak ingurumenaren iraunkortasunaren alde egindako herritarren parte-hartzea sustatzeko ekimena da. Honek, herritarron ohiturak aldatzeko ideia errazak eta ekintza praktikoak proposatzen ditu, baliabideak eraginkortasun handiagoz erabilteko eta eragin kaltegarriak apaltzeko, etxeko eta tokiko ekonomia sustatzeagaz batera.

Jadanik Mungialdeko ikastetxe batzuk programaren laugarren fasean hartzen dabe parte.

Mungiako Udalak iraunkortasunaren aldeko apustua egiten dau eta herritarrak animatu nahi dauz ekimenean parte hartu daien, <http://www.bizkaia21.eus/> helbidean erregistratuta.

Plataformak euren eguneroko ohituren iraunkortasuna aztertzen dau eta horreek ingurumenean daukien eragin negatiboa aldatzeko beharrezko alderdiak nabarmentzen dauz.

Mungia apuesta por la sostenibilidad ambiental

Actívate + es una iniciativa para el fomento de la participación ciudadana a favor de la sostenibilidad ambiental. Esta propone ideas sencillas y acciones prácticas con el objetivo de modificar los hábitos de vida aumentando la eficiencia en la utilización de los recursos, disminuyendo su impacto negativo y favoreciendo la economía doméstica y local.

ALTZARIAK ETA TAMAINU HANDIAKOAK / RECOGIDA VOLUMINOSOS

BETI AURRETIK DEITUTA (944.355.750 tel.), eguna, ordua eta lekua zehazteko.

SIEMPRE PREVIA LLAMADA al teléfono 944.355.750 para concertar, día, hora y lugar de depósito.

BAI SÍ

- Etxeetako elektrotresnak, altzariak eta tamainu handiko gauzak.
- Oinezkoen eta ibilgailuen pasabidean enbarazurik egin barik itxi beharko da, ahalik eta kalterik gutxiagoragind.
- Electrodomésticos, muebles y enseres voluminosos procedentes de viviendas.
- Se deben dejar sin ocupar zona de tránsito peatonal ni de circulación de vehículos, causando las menores molestias posibles.



EZ NO

- Banan ez dagozan altzariak, banandu ezineko unidade edo atalak diranak, etxeetako altzari barrien bilgarriak edota etxe-aldatzeetarako erabilitako bilgarriak.
- Los elementos del mobiliario que no se puedan considerar como aislados o singulares, ni embalajes de los nuevos amueblamientos domésticos y de mudanzas.
- Ez itxi edonon.
- No los dejes en cualquier lugar.
- Ez itxi eguna, ordua eta lekua zehaztu barik.
- No los dejes sin haber concertado hora, día y lugar de depósito.



NEGUA / INVIERNO
Astelehenetik eguenera
(Lunes a jueves):
8:30-14:00/15:00-17:30
Barikuetan (Viernes):
8:30-14:00

UDA / VERANO
Astelehenetik barikura
(Lunes a viernes):
8:00-14:00

Los alumnos y alumnas de Mungia disfrutan de una amplia programación de actividades ◀

Mungiako ikastetxeek programazino zabala daukie

Mungiako Udaleko zerbitzu eta sail ezbardinek eta Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunitateak, ikastetxeakaz alkarlanean, jarduera-programazino bat egiten dabe urtero ikasleen artean baloreak, ohitura osasungarriak eta beste gai batzuk lantzeko proiektuak garatzeko. Heziketarako funtsezkoak diran edukiok eskola-irteeretan, proiektzinoetan, tailerretan eta antzekoetan lantzen dabez.

Jarduera-eskaintza honek Mungiako eskola-populazio osoa hartzen dau kontuan, hau da, 6 eta 18 urte bitarteko 3.000 ikasle baino gehiago.

Jarduera horreen kostua Udal Zerbitzu eta sailen kontura doa eta ahalegin ekonomiko garrantzitsua egiten da horretarako.

El Ayuntamiento, la Mancomunidad de Mungialde y los centros escolares colaboran para generar el programa anual

Desde diversas áreas y servicios del Ayuntamiento de Mungia y la Mancomunidad Mungialde de Servicios Sociales, en coordinación con todos los centros educativos, se realizan anualmente una programación de actividades desarrollando programas y proyectos que contribuyen a trabajar variedad de temas, adquirir valores y promocionar hábitos saludables entre el alumnado. La oferta de actividades abarca a toda la población escolar de Mungia, es decir, a más de 3.000 alumnos y alumnas de entre 6 y 18 años.



Alumnos y alumnas de Mungia durante las actividades organizadas para el *Día sin mi coche*.

Para ello, desde el Área de Acción Social e Igualdad se organiza y gestiona un plan de trabajo anual coordinado junto con los centros escolares para trabajar contenidos fundamentales en la educación a través de talleres, salidas, proyección de películas, representaciones teatrales, etc.

Asimismo, durante el curso escolar se organiza una serie de talleres y conferencias dirigidas a las madres y padres del alumnado con el fin de proporcionarles pautas y herramientas que les sean útiles en su labor educativa.

El coste de estas actividades corre a cargo de los servicios y departamentos municipales, haciendo un esfuerzo económico importante.

LAS ÁREAS TEMÁTICAS QUE SE TRABAJAN SON:

- Educación para la salud.
- Educación afectivo sexual.
- Promoción de valores.
- Interculturalidad.
- Prevención de las adicciones.
- Igualdad de oportunidades.
- Prevención de la violencia de género.
- Promoción del uso del euskera.
- Cuidado del medio ambiente
- Sostenibilidad.
- Fomento de la afición por la cultura.
- Intergeneracionalidad.

Gizaberri alkarteak jasoko dau aurten AMAtxu Saria

AMAtxu Sariaren bitartez, beronen XIV. edizinoan, borondate hutsez besteen alde zer edo zer egiten dabenak saritzen jarraituko dogu.

Gizarte Kontseiluak herritarren parte-hartze organoak proposatu eta Osoko Bilkuran aho batez onartu ostean, aurton, 2000. urtetik hona bertoko eta atzerriko herrietan proiektuak garatzen lagundu dauen Gizaberri alkarteari emongo jako saria. Eskerrak emon gura deusaguz alkarte horri hainbeste urtean eskaini dauen ahalegin eta borondatezko inplikazioagaitik.

Hain zuzen bere, hirugarren munduko proiektuak finantzatzeko dirua batzeko beharrianaz sensibilizatzen gaitue eta, horren ganera, gure herriagaz loturea euki eta atzerrian gizarte mailako proiektuak bideratzen dabilzanei laguntzeko baliabide ekonomikoak lortzen dabez.



AMAtxu Sariaren ekitaldira etorten animatzen zaituegu, alkarte honi danon esker ona erakusteko.

Hamaikatu proiektutan lagundu dabe, esate baterako, Kongora materiala bialdu dabe ospitale bat zabaltzeko eta Beninen eskolak egiteko. Horren ganera, bertokoei laguntzeko bere dirua batzen dabe, besteak beste, bigarren eskuko liburuak salduta eta maiatzean afari solidarioa antolatuta.

Ekitaldia Mungiako Landesa Etxe-Taldeko Plazan egingo da maiatzaren 1ean, eguerdiko 13:15ean.

Premio AMAtxu Saria

A propuesta del Consejo Social, órgano de participación ciudadana, y por unanimidad del Pleno, el 1 de mayo, la asociación Gizaberri recibirá el premio AMAtxu en su decimocuarta edición como reconocimiento a su labor desinteresada consiguiendo fondos para proyectos solidarios.

Eskualdeko Adikzinoen Bosgarren Plana



Mungialdeko Mankomunitatea buru-belarri dabil lanean adikzinoen arloan sortzen diran beharrian barrietan laguntzeko.

Teknologia barrien gehiegizko erabilera, online jokoak eta ludopatiak gehitu dira

Gizarte Zerbitzuen Mungialdeko Mankomunitateak 2015-2019-Eskualdeko Adikzinoen

Bosgarren Plana sortu dau. Plan hori sortu aurretik aurreko Planaren ebaluazioa eta alor honetan eskualdeko errealdetaren analisi sakon bat egin zan: Ikastetxeetako ikasleen artean galdetegi bat, gizarte eragile eta alkarte ezbardinekin elkarriketak, gazteen artean eztabaida talde ezbardinak, eta abar.

Hori guztia oinarritzat hartu da, baita Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren VI. Mendetasun Planean jasoten diran helburuak eta lehentasuneko lerroak ere.

Helburuak ondokoak dira: adikzinoen gaiari erantzutea eta beharrian barriei egokitzen jakezan lan-lerro barriak gehitzea. Holan, planaren barrikuntzarik nagusietako

bat teknologia barrien gehiegizko erabilerea, online jokoak eta ludopatiagaz zerikusia daukienak gehitzea izan da.

Planaren lan eremuak eskolea, gazteak, familia, herritarrak, osasuna eta aisialdia dira.

V. Plan Comarcal de Adicciones

La Mancomunidad Mungialde de Servicios Sociales ha elaborado el V. Plan Comarcal de Adicciones para dar respuesta a este fenómeno e incorporar nuevas líneas de trabajo como las relacionadas con el uso abusivo de las nuevas tecnologías, el juego online o las ludopatías.



Zinegoak Festibalaren laburmetraiak proiektatu dira Mungian ◀



Gizartean dagoan dibertsitate sexuala ikusgai bihurtu eta naturalizatzen saiatzen dira

Lehen aldiz, Mungiak Zinegoak Jaialdiaren, Bilboko Gaylesbotrans Zinema eta Arte Eszenikoaren Nazioarteko Jaialdiaren hedaduran hartu dau parte. Bilbon egiten diran proiektazuez ganera, aurtén, 13. edizinoan, Euskal herriko hogeita hamar bat herrietan eskaini dira horren barruko obrak.

Dibersidade sexualaren aldeko festival honetan lehen aldiz hartu dau parte Mungiak.

Proiektu hau gure gizartean dagoan aniztasuna ikusgai bihurtzeko eta naturalizatzeko erreminta bezala erabili da. Helburu horri lotuta, joan dan martiaren 11n eta apirilaren 8an, identidadeagaz, generoagaz, diskriminazioagaz eta aniztasun sexualagaz zerikusia daukien sei laburmetraia proiektatu ziran Torrebillera Kultur Etxean.

Sensibilizar sobre la diversidad sexual y familiar

Mungia ha participado por primera vez en la Extensión del Festival Gaylesbotrans Zinegoak, proyectando seis cortometrajes.



Sexologiako Aholkularitza Zerbitzua abian da

- **Non:** Doako zerbitzu hau Katetxean eskaintzen da, errotaren aurrean. Internet bidezko kontsulta bere egin ahal da: infomungialde@gmail.com.
- **Noiz:** Hileko bigarren barikuan (hilero) 18:00etatik 20:00etara.
- **Nori zuzendua:** Mungialdeko Mankomunitateko herritarrei eta, batez ere, gazteei.
- **Helburuak:** Zalantzak argitzea, zailtasun puntualei aurre egitea, gure eskualdean dagozan baliabide eta zerbitzu espezializatuen barri emotea eta herritarrak eurok erabilten ohitzea, eta informatzea.

Telefonoa: 94.476.35.12 (Teresa)

Servicio de Asesoramiento Sexológico en marcha

- **Dónde:** El servicio gratuito se ofrece en el edificio Katetxea, frente al molino. Además, se pueden realizar consultas online en el correo infomungialde@gmail.com
- **Cuándo:** El segundo viernes de cada mes, de 18.00 a 20.00 horas.
- **Dirigido a:** Vecinas y vecinos de la zona de Mungialdea y especialmente a la juventud.
- **Objetivos:** Aclarar dudas, resolver dificultades puntuales, dar a conocer los recursos y servicios especializados de nuestra comunidad y orientar hacia su utilización, e informar.

Teléfono: 94 476 35 12 (Teresa)

Emakumeen Nazioarteko Eguna



Un año más, las baserritarras recibieron las flores que reconocen el duro trabajo realizado por ellas en el caserío. Parte de la corporación municipal salió a la calle para felicitar a estas mujeres.



60 lagun baino gehiago batu zituan bazkari bat egin zan Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko, ibilbidea ez dala erraza-eta emakume eta gizonen arteko bardintasun-eskubideen alde lan egiten jarraitu behar dala gogorarazteko. Bazkalostean, ez ziran falta izan dantzatzekoak, ezta Diz-Diz emakumeen alkarteak antolatutako tailerretan eskuz egindako opariak bere.



Ohitura dan legez eta goiza girotzeko, Diz-Diz eta Marwa elkarteek txokolate beroa eta bizkotxoak eskaini ebezan, eta 400 errazino banandu ziran herritarren artean.



Varios centenares de personas pudieron disfrutar de la representación teatral 'Menú a la luna', a cargo del taller de teatro Diz-Diz. Como todos los años, a través del teatro expresan su rechazo a la discriminación hacia las mujeres.



GORA SAN PEDRO JAIK!

Jai Batzordea prest dago

Jai Batzorde barria buru-belarri dabil lanean San Pedro Jaiak 2016 antolatzen. Alkarteei zuzendutako deialdi zabal bat egin ostean, batzorde horretan, Udaleko zinegotzi eta teknikariez ganera, herriko **hamaika** alkartetako ordezkariak hartzen dabe parte, urtero bezala. Alkarte horreek honeexek dira:

Kultura: Amilotx dantza taldea eta J.M. Arregi abesbatza.

Gizartea: Gorabide alkarte.

Kirola: Andui mendigoizale taldea eta Mungia-Butroi eskubalo taldea.

Gazteria: Txispeleta eskaut taldea eta Azken Zarata Mungia Rock.

Jubiladuak: Danontzat jubilatuta eta pentsinodunen alkarte.

Gurasoak: Laukariz ikastetxeko gurasoen alkarte.

Merkataritza: Mungiako merkataria eta ostalarien alkarte.

Txosna: Marijata Kultur Elkartea.

Aizu! Hartu eizue parte kuadrillen txapelketan!

Aurtengoan, jaietan kaleko giroa berotzen eta kuadrillen parte-hartzea indartzen dauen txapelketaren seigarren edizinoa egingo da. Parte-hartzeko oinarriak ondokoak izango dira:

1. Maiatzaren 20ra arteko epea dago izena emateko (Gaztegunean).
2. Kuadrilla bakotxa gitxienez bere 6 lagunek osatu beharko dabe.
3. Izena emokeran, honako datuak emon beharko dira:
 - Kuadrillaren izena.
 - Parte-hartzaileen izen-abizenak eta jaiotze-data.
 - Ordezkariaren izen-abizenak, helbidea, NAN-a, jaiotze-data, telefonoa eta posta elektronikoa.
 - Kuadrilla bakotxa ondo identifikatu ahal izateko, erropa edo bereizgarri bat eroan beharko dabe kideek proba guztietan.

